

IX. LEGEGINTZALDIA
2015-2019 LEGEALDIA
UXUE BARKOS BERRUEZORen
INBESTIDURA-HITZALDIA
(GEROA BAI)

BAKEA ETA BIZIKIDETZA

Baina badira beste "azpiegitura" batzuk zerikusia daukatena barne-indartzearekin, gizarte baten bizikidetzarekin...

Parlamentuko jaun-andreok, Nafarroak hamarkada gehiegitan jasan ditu indarkeria-mota bidegabeak eta giza eskubideen, zibilen eta politikoen urratzeak. Aro politiko berri baten aurrean gaude, eta denok konpromiso sendo bat hartu dugu bakearekin, normaltasunarekin eta bizikidetzaren demokratikoarekin. Pertsonen duintasuna eta oinarritzko giza eskubide guztiak kontu handiz errespetatuz, akordio programatiko hau sinatu dugun indarrok indarkeria xede politikoekin erabiltzeari errefusa marraz izenpetu dugu.

Une honetan bizi dugun bakeak biktima guztiei oroimena, justizia eta ordaina bermatu behar die salbuespenik gabe. Eta egindako kaltearen aitortpena eta biktimek egia jakiteko eskubidea exijitzen ditu.

Bakeak eta memoriak konpromiso horren beharra daukate, baina baita eguneroko lanarena ere, askotan diskretua eta ezezaguna dena. Ildo horretatik, akordio programatikoaren VI. kapituluak argi eta garbi zehazten du ibilbide-orria, gure lurraldetik indarkeria baztertu eta biktimak haien oroimenean gogobetetzeko neurri eraginkorrak ezartzearen bidez.